

Nahia Rodriguez Amundarain

B maila • 2 saria

Kaixo irakurleok, ni Nahia nauzue, 14 urteko ikasle ormaiztegiarra. Izatez, musika zalea naiz oso, baina irakurzaletasunak ere, txiki txikitatik izan du lekua nire bizitzan. Haurra nintzenean, oheratzerakoan, ahizpari eta biori amak ipuinak kontatzen zizkigunetik. Agian, Mattinen istoriaren jatorria ere hortxe legoke, gauero entzundako ipuin eta istorioek nire irudimenean sortutako bizipenetan. Oroitzapen horien guztien ondorio izan daitekelakoan, eta gustukoa izango duzuelakoan, hona hemen Mattinen istorioa.



MATTIN

Bada Mattin izeneko mutiko alproja bat. Mendikateen artean bizi da eta bertan ibiltzen da gu guztien amets gaiztoen zaindari. Ia inork ezin izan du bere bizilekua aurkitu, baina nire aitonak ezagutzeko aukera izan zuen. Horrelaxe kontatu zidan mendien artean izandako abentura, Mattin ezagutzera eraman zuena:

Egun eguzkitsua zen, zeruan ez zen laino bakar bat ere ageri eta aitona Joxe, Elurrekin joan zen mendira. Elur, aitonaren txakurra zen eta asko maite zuen, amak behintzat hori dio. Abiatu ziren bai izerdi patsetan baina, dakizuenez, eguraldia inork ezin du kontrolatu ezta eguraldi gizonak ere, eta bat-batean ekaitza hasi zuen.

Aitona euri tartean blai eginda zebilen noraezean, ekaitz gogor haren trumoi eta tximista artetik bizirik ateratzeko ere esperantza galdurik, baina orduan ortzadarra ikusi zuen eta ahots batek esaten zion:

- Etorri! Etorri, ortzadarraren bukarerara! Hemen lasaitasuna eta babes topatuko dituzu! Ez izan beldurrik.

Aitonak zer egin ez zekien eta azkenean ahots hark esandakoa egitea erabaki zuen. Tamalez uste baino urrutiago zegoen ortzadarraren bukaera eta bidearen erdia baino gehiago eginik zeukanean, ortzadarra desagertu zen. Ia iluntzen hasia zegoen eta etxera bueltatzeko berandu zen; beraz, kobazulo batean lo egitea erabaki zuen eta nekeak jota zegoenez, berehala lokartu eta ametsetan hasi zen.

Baina bere ametsa ez zen izan ohikoa, ezta gutxiagorik ere. Hondartzan zegoela amestu zuen eta, itsasoan igerian ari zela, mutiko bat azaldu zitzaion, esanez:

- Kaixo Joxe! Gaur mendian galdu zara ezta?

- Bai. Nola dakizu hori?-erantzun zion Joxek harriturik.

- Ni Mattin naiz eta gaur entzun duzun ahotsa nirea zen.

- Baina nola demontre izan liteke hori posible ? Eta horrez gain, zer ari zara zu nire ametsean?
- Nire lana jendearen amets gaiztoak polit bihurtzean datza eta horregatik nago zure ametsean.
- Eta zeure lana amets gaiztoak polit bihurtzea bada, nola aurkitu nauzu gaur arratsaldean, esna nengoen bitartean?-galdetu zion Joxek-.
- Ni mendi hauetan bizi naiz eta, galdurik ikusi zaitudanean, laguntzeko beharra sentitu dut.
- Orain ulertzen dut dena. Mila esker! Baina orain, galdutakoan baino are urrutiago nago etxetik. Beraz, ez daukat zer eginik.
- Lasai egon zaitez Joxe! Bihar esnatzean, ortzadarra aterako da berriro; hura jarraitu eta elkartuko gara. Aio!
- Baina, baina...-hasi zen Joxe esaten, baina ia berandu zen, Mattinek alde egin zuen honezkero.

Hurrengo goizean, esnatu bezain pronto, kobatik atera zen eta zerura begiratu zuen, ortzadarrak ageri zen ikusteko. Zortea bere alde zuen aitonak, izan ere zeruan ortzadar eder bat ageri baitzen, koloreak guztiz argi ikusten zitzaizkiona. Denborarik galdu gabe, berehala abiatu zen ortzadarraren bukaera alderantz.

Iritsi zenean, alde guztietara begiratu zuen, baina han ez zen inor ageri. Dena amets zoro bat besterik ez zen izan! Kitto aitonaren esperantzak! Eta orain zer egingo zuen? Nola bilatuko zuen etxerako bidea? Pentsamendu horiek buruan bueltaka zerabiltzanean, bat-batean ahots isil bat entzun zuen esanez:

- Hemen nago Joxe, hemen nago.

Joxe bila ibili zen hara eta hona, baina ez zen inor ageri. Lurrerantz begiratu zuen arte. Hantxe iratxo txiki bat aurkitu zuen lurrean saltoka eta oihuka.

- Baina, baina... nire ametsean ez zinen eta horrelakoa. Zer gertatu zaizu?-galdetu zion harriduraz-.

- Ez zait ezer ere gertatu -erantzun zion Mattinek- Atzo esan nizun bezala, amets gaiztoen zaindaria naiz eta bakoitzak duen arazoari aurre egiteko behar duena irudikatzen dut, edo bakoitzaren irudimenaren arabera era batera edo bestera ikusten naute.

Mattinek gizaki itxura zuen, baina eskutan hartzeko modukoa zen. Ilegorria zen eta aurpegia oreztaz josia zuen. Sudur txiki-txikia eta irrifar handi-handia zituen. Berde kolorez jantzirik zihoan eta buruan kolore bereko txapel bat zeraman.

- Kontxo, hori bai arraroa. Eta zuk zertarako nahi zenuen ni hona etortzea, etxera joaten denbora gutxiago behar banuen?-galdetu zion aitonak-.

- Bada, zure alaba Mirenek ia gauero amets gaiztoak izaten ditu eta horietan sartzen banaiz ere, ez dakit zer nolako irtenbidea eman.

- Batzuetan esnatu egiten da, baina ez dit ezer ere esaten. Zer amesten du?

- Gela argitsu batean dagoela, baina bat-batean argia itzaltzen da eta garrasika hasten da. Ni lasaitasunez joaten saiatzen naiz, baina ez du ezertarako balio izaten; ni iristean, gehiago beldurtzen da eta. -erantzun zion Mattinek arduraturik-

Eta aitona erantzutera zihoanean, eguzki izpi handi batek itsutu zituen biak. Begiak berriro irekitzea lortu zuenean, ortzadarra desagertuta zegoen eta Mattin ere bai. Deika aritu zen, baina inork ez zuen erantzuten. Bere ahotsaren oihartzuna besterik ez zen entzuten.

Bakarrik zegoela konturatuta, aitonak etxera bueltatzea erabaki zuen eta, bidean zihoala, iluntzen hasi zen. Beraz, bart gauean babesa eman zion koba berean gaua pasatzea erabaki zuen. Gau hartan ere Mattinekin amestu zuen aitonak eta zorte on opa zion. Etxera iritsi zenean,

bere alabarena joan zen, hau da nire amarena. Ama oso lotsatia agertzen da etxetik kanpo, baina etxean oso dibertigarria da berarekin egotea. Agian, ingurukoek esaten dutenaren beldur delako da hain lotsatia batzuetan.

Aitonari eta amari asko gustatzen zitzairen elkarrekin lorategian egotea eta aitonari gertatutakoari buruz hitz egiteko leku egokiagorik ez zitzaion burutu. Beraz, lorategirantz abiatu ziren.

Aitonak gertatutakoa azaldu eta gero, amak segituan kontatu zion gertatzen zitzaiona. Amak iluntasunari beldurra zion eta ezin izaten zuen lorik hartu. Aitona, ordea, inoiz ezagutu dudan gizonik argiena zen eta arazo horri aurre egiteko gai ere bazen. Hau esan zion aitonak amari;

- Iluntasuna beldurgarria izan daiteke, bai, baina zein da beldur horren arrazoia? Nire ustez ezjakintasuna da hori sortzen diguna. Egin beharreko gauza bakarra ezjakintasun horrekin bizitzen jakitea da, bai iluntasunean eta bai bizitzako alor guztietan. Iluntasun horretan gauza beldurgarriak ikusi orde, ikus ezazu Mattin, zu laguntzeko asmoz. Konturatu zaitez beldurra ematen duten gauza asko egonik ere bizitzak gauza polit asko dituela agerian jartzeko eta horiek ikusteko gai ez bagara guztiz galdurik egongo gara. Beraz, ikusi ezazu dena era ederrean, asko lagunduko baitizu.

Aitona eta ama besarkaturik egon ziren denbora luzez, Mattin ezagututako mendirantz begira. Momentu horretatik aurrera ama eta aitonaren artean lotura berezi bat sortu zen.. Eta urteak aurrera joan baziren ere, bien arteko loturak beti iraun zuen. Begietara begiratu hutsarekin elkar ulertzen zuten. Baina orain dela egun gutxi batzuk aitona galdu genuen. Alzheimerra zuen eta hil baino egun batzuk lehenago ama ez zuen ezagutu ere egin.

Amarentzat oso gogorra izan da aitona uztea, baina nik badakit ama oso azkarra dela, aitona bezalaxe. Eta hark erakutsirikoa egingo duela, ziur nago. Azken egun hauek ahaztu eta berarekin bizi izandako mila abenturak buruan gorde.

Orain arte amari buruz bakarrik hitz egin dut, baina nik aitona oso maite nuen eta urte gehiagotan zehar nire ondoan egongo zela espero nuen. Tamalez, orain dugun egoera guztiz bestelako bada ere, alde onak ikusten saiatuko naiz.

Oraingoz ez dut izan Mattin ezagutzeko aukerarik, baina zuetako norbaitek ezagutuko balu, nirekin hitz egiteko eska iezaiozue, mesedez. Mattini esker bizitzako alderdirik ederrenak ikusten ikasi baitu gure familiak.

Ziur nago edozein gautan etorriko zaidala bisitan. Agian, gaur bertan. Nik badaezpada ere nire bihotzeko eta irudimeneko leihoak irekita utziko ditut.